# POR UNA NAVARRA JUSTA Y SOLIDARIA

ELA LAB ESK STEE-EILAS CGT EHNE

El pasado 19 de noviembre, los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE realizamos una asamblea y nos concentramos ante el Parlamento para denunciar la situación del empleo en nuestra comunidad y la política antisocial del gobierno de Navarra.

En el documento elaborado para dicha ocasión criticábamos la política empresarial de presentar expedientes de regulación de empleo con el objetivo de aumentar aún más los beneficios empresariales a costa del nivel y la calidad del empleo. Tampoco podemos dar por buena la opción neoliberal del Gobierno de Navarra, que se traduce en favorecer a las empresas y en bajar los impuestos a las rentas más altas, a costa de mantener una política cicatera en materia de gasto social.

De enero a julio de este año se han aprobado 74 expedientes de regulación de empleo, afectando a 3.109 trabajadores/as: han aumentado un 68,2% el número de expedientes y se ha multiplicado por 6 el número de personas afectadas. Ahí están los ejemplos de TRW-Orkoyen, Dura Automotive, Logística, Logex, Kayaba, ISN,...

Estos expedientes, que implican una importante pérdida de empleos, son una muestra de cómo la política empresarial, y en especial la de las multinacionales, aprovecha todas las circunstancias posibles para reducir los costes laborales y aumentar los beneficios. Asimismo, nos muestran la creciente dependencia de la economía Navarra de las empresas transnacionales, que están incrementando la precariedad, la temporalidad y la inseguridad en los puestos de trabajo.

Ante esto, el Gobierno de Navarra mantiene una posición sumisa a los intereses de las multinacionales y de la patronal, a pesar de saber perfectamente que va en contra de los intereses de las personas y se pone en riesgo el futuro del tejido productivo. Conoce perfectamente la situación real de las empresas, que en su inmensa mayoría presentan importantes beneficios, sin embargo no duda en aprobar los expedientes que se presentan.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE denunciamos que el proyecto de presupuestos para 2004 opta por seguir reduciendo el peso del sector público en la economía (baja del 22,5% del Valor Añadido Bruto en 2002 al 21,4% en 2004), dejando sin cubrir muchas de las importantes necesidades sociales existentes (vivienda, sanidad, 0 a 3 años, renta básica, medio ambiente, servicios sociales...).

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE rechazamos la nueva reforma del IRPF que el gobierno quiere aprobar en el Parlamento, de la que se beneficiarán, fundamentalmente, las personas con ingresos más altos, a la vez que se sigue permitiendo el ingente fraude fiscal, protagonizado, también, por las rentas más altas. Esta reforma es una nueva prueba de la política injusta e insolidaria de nuestras instituciones, avalada, además, por UGT, CCOO y CEN, que aprobaron un documento que recogía la necesidad de que el tipo marginal máximo del IRPF se redujese hasta el 40% en 2007.

Esta posición de UGT y CCOO, absolutamente injustificable, es muy coherente con la línea que siguen en las empresas, aceptando la inmensa mayoría de los expedientes de regulación que éstas presentan, o con los apoyos a la acción del gobierno navarro en materia de empleo.

## HAY ALTERNATIVAS

Sin embargo, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE no compartimos este modelo. Sabemos, además, que con estos empresarios que no tienen más objetivo que llenarse los bolsillos a costa de la precariedad, del aumento de la siniestralidad laboral y la pérdida de la salud y con este gobierno genuinamente conservador no caben componendas. El único camino es la reivindicación sindical en las empresas, en los sectores y en el conjunto de la sociedad; el único camino es la lucha sindical y social.

En este momento estamos preparando la negociación colectiva para el año que viene. Asumimos el papel del sindicato como fuerza social alternativa: sectores como las mujeres y los jóvenes, particularmente castigados por la precariedad, por las dobles escalas salariales, exigen esa forma alternativa de hacer sindicalismo. Tenemos responsabilidades, tenemos oportunidades y trabajando juntos podemos ir abriendo un espacio sindical y social necesario e ilusionante.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE pensamos que hay que poner fin a esta situación y tenemos alternativa:

- Luchando por el empleo y contra la precariedad, y apoyando a las trabajadoras y trabajadores que rechazan los expedientes de regulación de empleo.
- Exigiendo una política industrial y de empleo al Gobierno de Navarra, con políticas públicas y de inversión, potenciando la creación de empleo en el sector público y en el privado, así como la reducción drástica de la temporalidad, la precariedad y la subcontratación.
- Retirando la reforma del IRPF que se pretende aprobar, luchando contra el fraude fiscal y no permitiéndolo, y elaborando unos presupuestos que aumenten notablemente el gasto social (sanidad, educación, vivienda, renta básica, medio ambiente, servicios sociales,...).

Así, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT y EHNE hacemos un llamamiento a la manifestación que tendrá lugar el próximo día 12 de diciembre a las 19 horas desde Autobuses.

**¡ACUDE!**

**MANIFESTACIÓN: 12 diciembre, 19 horas**
**Inicio: Estación de autobuses de Pamplona**

# JUSTIZIA ETA ELKARTASUNA BESTELAKO NAFARROAREN OINARRI

ELA LAB ESK STEE-EILAS CGT EHNE

Azaroaren 19an, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok, batzarra egin ondoren, Legebiltzarraren aurrean elkartu ginen, gure erkidegoko enpleguaren egoera eta Nafarroako gobernuaren politika antisoziala salatzeko.

Abagune horretarako prestatutako agirian, enpresarien politika kritikatu egiten genuen, enplegu-erregulazioko espedienteez baliatzen baitira, enpleguaren mailaren eta kalitatearen pentzutan beren mozkinak ugaritzeko. Nafarroako gobernuak neoliberalismoaren alde egin duen apustuari ere ezin diogu oniritzirik eman, enpresentzako onurak areagotu, errenta handienen gaineko zergak txikiagotu eta gizarte- gastua gero eta gehiago murriztu besterik egiten ez duelako.

Aurtengo urtarriletik uztailera bitarte, 3.109 langileri eragiten dieten 74 erregulazio-espediente onartu dira: hau da, espedienteen kopuruak %68,2ko igoera izan du, eta kaltetutako langileen kopurua 6 aldiz handiagoa da. Horra hor TRW-Orkoyen, Dura Automotive, Logística, Logex, Kayaba, ISN eta abar.

Oso enplegu-galera larria ekarri duten espedienteok argi erakusten dute enpresarien politika, batez ere multinazionalena: aukera guzti-guztiak aprobetxatzen dituzte lankostuak murrizteko eta mozkinak ugaritzeko. Era berean, agerian uzten dute Nafarroako ekonomiak enpresa transnazionalekiko duen menpetasun hazkorra, enpresa horiek lanpostuen behin-behinekotasuna, segurtasunik eza eta aldi baterako kontratuak areagotzen ari direlarik.

Horren aurrean, Nafarroako Gobernuak multinazionalen eta ugazaberiaren menpeko jarrerari eusten dio, pertsonen interesen kontra jotzen duela eta Nafarroako ekoizpen-ehunaren etorkizuna kolokan jartzen duela ondo jakin arren. Gobernuak ondo ezagutzen du enpresen benetako egoera, eta badaki gehien-gehienek mozkin handiak dauzkatela, baina, hala ere, dudarik egin gabe onartzen ditu aurkezten diren espediente guztiak.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok salatu egiten dugu 2004rako aurrekontu-proiektuak aukeratu duen bidea, sektore publikoak ekonomian duen pisua murrizten segitzen baitu (2002ko Balio Erantsi Gordinaren %22,5etik 2004ko %21,4ra), gizarteak dituen premia larrietako asko estaltzeke utziz: etxebizitza, sanitatea, 0-3 urteko umeen hezkuntza, oinarrizko errenta, ingurumena, gizarte-zerbitzuak,...

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok erabat arbuiatzen dugu gobernuak, legebiltzarrean, PFEZri buruz onartu nahi duen erreforma berria, horren etekina sarrera handienak dituzten pertsonek bakarrik hartuko dutelako, zerga-iruzur eskerga baimentzen jarraitzen delarik –eta horren protagonistak ere errenta handienak dira–. Erreforma hori gure instituzioen politika bidegabe eta insolidarioaren beste froga bat da, eta, gainera, UGT eta CCOO sindikatuen eta CEN konfederazioaren abala du, 2007rako, PFEZren gehienezko tasa marjinala %40raino murriztea proposatzen zuen dokumentua sinatu zuten eta.

Hala ere, UGT eta CCOO sindikatuei dagokienez inolako justifikaziorik ez duen jokabide hori, oso koherentea da sindikatuok enpresetan erakusten duten jarrerarekin: enpresek aurkezten dituzten erregulazio-espediente gehientsuak onartzen dituzte, Nafarroako gobernua enpleguaren arloan gauzatzen ari den ekintzetan lagunduz.

## ALTERNATIBAK BADAUDE

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok ez gatoz bat eredu horrekin. Jakin badakigu behin-behinekotasunaren, lan-istripu gero eta ugarien eta osasun-galeraren pentzutan patrikak bete beste helbururik ez duten enpresari horiekin eta guztiz atzerakoia den gobernu honekin ez dagoela zereginik. Irtenbide bakarra sindikatuen aldarrikapenak enpresetan, sektoreetan eta gizarte osoan zabaltzea da. Bide bakarra borroka sindikala eta soziala da.

Orain, datorren urterako negoziazio kolektiboa prestatzen ari gara. Geure egiten dugu sindikatuari gizarte-indar alternatibo gisa dagokion eginkizuna; behin-behinekotasunaren eta soldata-eskala bikoitzen zigorra bortizkien jasaten duten kolektiboak –batez ere, emakumeak eta gazteak– sindikalismoa garatzeko bide alternatibo hori galdatzen ari dira. Erantzukizunak ditugu, aukerak ditugu eta, batera lan eginez, honenbeste behar dugun eta ilusioa piztu dezakeen esparru sindikal eta soziala eratzen hasi ahalko gara.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok egoera hau amaiarazi egin behar dela uste dugu, eta alternatibak baditugu:

- Enpleguaren alde eta behin-behinekotasunaren aurka borrokatzea eta enplegu- erregulazioko espedienteak errefusatzen dituzten langileei laguntzea.
- Nafarroako gobernuari sektore publikoan zein pribatuan lana sortuko duen eta aldi baterako kontratuak, behin-behinekotasuna eta azpikontratazioa errotik murriztuko dituen enplegu eta industri politika exijitzea.
- Onartu nahi duten PFEZren erreforma galaraztea; iruzur fiskala jazar dezaten galdatzea, eta gizarte-gastua (sanitatea, hezkuntza, etxebizitza, oinarrizko errenta, ingurumena, gizarte-zerbitzuak,...) nabarmenki areagotuko duten aurrekontuak aldarrikatzea.

Irizpide horietan oinarrituta, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT eta EHNE sindikatuok dei egiten dizuegu abenduaren 12an, 19:00etan, autobus geltokitik irtengo den manifestazioan parte hartzera.

**ETORRI!**

**MANIFESTAZIOA: Abenduaren 12ean, 19:00 etan**
**Lekua: Iruñeko autobus geltokia**